

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak estatu osoan baino PFEZ txikiagoa aplikatuko du atal guztietan

Erreformatik 0 eta 5 puntu arteko erreformatu proposatu du, estatuko erreformatik, aldiz, gehienez ere 7 puntu

Miércoles, 25 de enero de 2012

Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, estatu osoako PFEZarena baino [erreforma](#) leunagoa eta mailakatuagoa onetsi du.

Erreforma 2012 eta 2013 ekitaldietako aldi baterako izango da, eta araubide komuneko autonomia erkidego guztientzat estatuak aplikatu duena baino txikiagoa atal guztietan. Errekargua 0 eta 5 puntu artekoa da. Estatukoa, aldiz, 0,175 eta 7 puntu artekoa.

Nafarroan, gehieneko tasa % 49n geratuko da, estatu osoko gehienekoa baino 5 puntu gutxiago (% 54). Errenta baxuenei dagokienez, araubide komuneko autonomia erkidegoetan gertatu dena ez bezala, 0,01 eta 3.825 € arteko ataleko errentek ez dute errekarigurik izango. Atal hori zergadun guztien % 15,73 da (55.895 zergadun).

Foru Erkidegoaren PFEZaren erreformari esker, nafarren zergak estatuan baino baxuagoak izango dira, eta araubide komuneko autonomia erkidegoei eskatu zaienaren % 70 baino gutxiago izango da.

PFEZa aldatzeko gaur onetsi den Lege Proiektua Parlamentuan izapidetuko da datozen asteetan, irakurketa bakar bidez, Foru Legearen Proiektu gisa. Aurreikusituz, atxikipenen taula berria otsaileko soldatarrietan aplikatuko da.

Hamaika tasa

Orain arte, Foru Erkidegoan zortzi tasa aplikatu izan dira zergadunen zerga-oinarriaren arabera. Erreformaren bidez hamaika tasa aplikatuko dira, pixkanaka. Beheko atalean (0 eta 3.825 euro artekoa) tarifaren % 13ko portzentajeari eutsiko zaio. Ondorengoan (3.825,01 eta 8.499,00 euro artekoa) % 0,50eko errekarigua aplikatuko da eta tarifa % 22,50 izatera pasako da. Hirugarrenean (8.499,01 eta 17.526,00 euro artekoa) ere, errekarigua % 0,50ekoa izango da eta tarifa berria % 25,50ekoa. Laugarren atalean (17.526,01 eta 30.805,00 euro artekoa) % 1,50ekoa izango da errekarigua, eta tarifa berria % 29,50ekoa. Bosgarren atalean (30.805,01 eta 45.480,00 euro artekoa) % 2,00koa izango da errekarigua, eta tarifa berria % 38,00koa. Ondorengo atalean (45.480,01 eta 53.407,00 euro artekoa) % 2,50ekoa izango da errekarigua, eta tarifa berria % 42,50ekoa. Zazpigarren atalean (53.407,01 eta 88.000,00 euro artekoa) % 3,00koa izango da errekarigua, eta tarifa berria % 45,00ekoa. Zortzigarren atalean (88.000,01 a 125.000,00 euro artekoa) % 3,50ekoa izango da errekarigua, eta tarifa berria % 46,50ekoa. 88.000,01 a 125.000,00 euro arteko atalari

dagokionez, errekgua % 4,00koa izango da errekgua, eta tarifa berria % 48,00koa. 175.000,01 y 300.000 euro arteko errenten atalari dagokionez, errekgua % 4,50ekoa izango da, eta tarifa berria % 48,50ekoa. Amaitzeko, 300.000,01 euro baino gehiagoko errenten errekgua % 5,00 izango da, eta tarifa berria % 49,00 izatera pasako da.

Kapitalaren errentak

Kapitalaren errentei dagokienez, Nafarroan egin den aldaketa estatu osokoa baino txikiagoa izango da. Estatuan, Errekgua % 2 eta 6 artekoa izango da, eta Nafarroan % 1 eta 5 artekoa. Hori dela-eta, 0,00 eta 6.000 euro arteko zerga-oinarriari aplikatuko zaion errekgua % 1ekoa izango da (% 2koa estatuan), eta tarifa berria % 20,00koa izango da (% 21 estatuan). 6.000,00 eta 24.000 euro arteko zerga-oinarriaren kasuan, % 3ko errekgua onetsi da (% 4 estatuan), hortaz, tarifa berria % 24,00 da (% 25 estatuan). Amaitzeko, 24.000 euro baino gehiagoko zerga-oinarri % 5eko errekgua aplikatuko zaie (% 6 estatuan), eta tarifa berria % 26 izango da (% 27 estatuan).

Gobernuaren bilkuran onetsi den PFEZaren aldaketa iragan abenduaren 30ean Gobernu zentralak araubide komuneko autonomia erkidegoentzat iragarritako neurrien ondorioz egingo da, izan ere, Nafarroak estatuarekin adosturiko Hitzarmen Ekonomikoren arabera, Foru Erkidegoak estatuko gainerako presio fiskalaren baliokidea denari eutsi behar dio; horregatik, araubide komunean PFEZa aldi baterako igo zenez, Nafarroak indarrean diren tasak berrikusi behar ditu.